

Pro-manuscriptotik tipografiara

Inprimategirako jaio zen *Jakin*. Halere, 13 zenbaki eta 5 urte eman zituen tipografiara pasa aurretik.

Lehen zenbakia multikopiaz bota genuen geure etxean (gauetz eta isilpean). Hurrengo hamabiak litografiaz atereak dira Bilkoko Ordorika inprimategian. Ez multikopiak, ez litografiak asetzen zuen *Jakin*. Tipografia zuen amets, bigarren zenbakian bertan Zuzendaritzak aditzera ematen duenez:

«...Txanponik ere eztegu sobran. Juxtu-juxtu gabiltz. Dirua gañezka ba'genu irarkolaz aterako genduke, baña...» (2, 1956, 181).

Inprimatzeko gogo honek ez du berehalakoan soluziorik. Bi urte beranduago ere asmoek asmo diraute:

«Denok dakizute inprentaz ateratzeko asmoetan gabiltzala, baña oraindik ezin izan dugu. Jainkoak argi eta lagun egin dezaigula ainbat lasterren gure asmoak betetzeko» (8, 1958, 93).

Hiru urte eta sei zenbaki gehiago beharko dira asmoek bete ahal izateko. «Dirua gañezka» ote? Ditua ez baizik gogoa du gainezka Zuzendatitza berriak. 1961eko lehen zenbakia tipografiaz ateratzea erabakitzen du. Halaxe atera zen 14. zenbakia. Eta honen ondotik beste bat... eta kitto. 1961eko abenduaren 9an Bilboko «Información y Turismo»ko Delegatuak debekatu egin zuen *Jakin* inprimatzea, baimenik gabe inprentaratu bait zen («pto-manuscripto» gisa). Bilboko «Graficas Bilbao»n inprimatu zenez, hango Delegatuak debekatu zuen; baina, iturri onetik jakin genuenez, Donostiatik zetorren agindua. Donostiako Delegatua, Felipe de Ugarte zen.